# SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA

## 2018ko UZTAILAREN 24

Santurtziko udaletxearen batzar-aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak direnean, Autonomiadun erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko batzarra egin du, Presidente jaunak aldez aurretik deituta. Batzarrean hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.
Kontseilukideak:
Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn. Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Ivan López Arenas jn. Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Estibaliz Olabarri González and. Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Denize Ribeiro Oliver and. Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.
Imanol Urtiaga Palacios jn. Bildu Udal Taldea.
Pedro Miguel Lucena Balda jn. Sozialistak Udal Taldea
Luis Angel Urdiales Villanueva jn. Alderdi Popularra Udal taldea
Jonatan Sánchez Fernández jn. Atxiki Gabeko zinegotzia
Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera and.
Programazio teknikaria: Natalia Garate Andrade and.
Behin-behineko kontu-hartzailearen ordez: Juan Ramón Rodríguez García jn.
Idazkari eskuordea: José Fernando García Pañeda.

Kontseiluburu jaunak batzarrari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

### 1. 2018ko MAIATZAREN 29KO BILERAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

2018ko maiatzaren 29ko ohiko saioaren akta aldez aurretik igorri denez, ez da une horretan irakurri.

Ez denez gai horrekin lotutako beste parte hartzerik izan, Kontseiluburu jaunak erabakiaren bozketa egin du:

EAJ-PNV, Sozialistak eta Alderdi Popularra Udal Taldeek aldeko botoa eman dute; Sí Se Puede Santurtzi eta EH Bildu eta Udal Taldeek eta Atxiki Gabeko zinegotziak, berriz, abstentzioa agertu dute. Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du 2018ko maiatzaren 29ko ohiko saioaren akta onartzea.

## 2. SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN 2018ko EKAINAREN 30era ARTEKO AURREKONTUAREN BETETZE-EGOERAREN BERRI EMATEA.

Artezkaritza Kontseiluak izan du Aurrekontuaren Betetze-egoeraren berri, zeinen informazioa aldez aurretik bidali zen.

## 3. AUTONOMIADUN ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontseiluburu jaunak Karmengo jaiei buruzko informazioa eman du, eta horretarako Programazio teknikariari eman dio hitza. Azken horrek jaietako daturik garrantzitsuenak azaldu ditu.

Sánchez Fernández jaunak kontzertuetako zenbatekoak eskatu ditu eta jaietara hurbildu direnen kopurua, aurreko urteen aldean, jaitsi dela adierazi du.

Urtiaga Palacios jaunak Santurtziko bandek burutzen duten kontzertuari buruzko balorazioa eskatu du eta galdetu du denboran mantendu behar den.

## 4. GALDE-ESKEAK

Lucena jaunak galdetu du BEZ-aren jaitsierak zine-txartelen jaitsiera ekarriko duen eta txarteldegi-, atezaintza-, eserleku zaintza- eta zine proiekzio-kontratuaren berritzeaz ere galdetu du. Bestetik, jolas-puzgarriak zergatik jarri diren soilik jaietako azken egunetan galdetu du.

Kontseiluburu jaunak egindako galderei eman die erantzun.

Saioaren grabazio osoa honako esteka honetan dago:
https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/ra0FlVp3lCWJ0eT

Jorratzeko beste gairik egon ez denez, Kontseiluburu jaunak batzarra amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egunean goizeko hamaikak eta hogeita bost direnean. Eta nik, organo honen idazkari eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.

**SESIÓN ORDINARIA DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL SERANTES KULTUR ARETOA**

**24 DE JULIO DE 2018**

En la Sala de Sesiones de la casa consistorial del Ayuntamiento de Santurtzi, siendo las once horas del día de la fecha antes indicada, previa convocatoria al efecto realizada por el Sr. Presidente, se reúne en sesión ordinaria el Consejo Rector del Organismo Autónomo con la siguiente composición:

Presidente: D. Danel Bringas Egilior.
Vocales asistentes:
D. Itsazain Ortolatxipi Ibañez. Grupo Municipal Nacionalistas Vascos.
D. Ivan López Arenas. Grupo Municipal Nacionalistas Vascos.
Dª Estibaliz Olabarri González. Grupo Municipal Nacionalistas Vascos.
Dª. Denize Ribeiro Oliver. Grupo Sí Se Puede Santurtzi.
D. Imanol Urtiaga Palacios. Grupo Municipal Bildu.
D. D. Pedro Miguel Lucena Balda. Grupo Municipal Socialista
D. Luis Angel Urdiales Villanueva. Grupo Popular
D. Jonatan Sánchez Fernández. Concejal no adscrito
Responsable de Comunicación: Dª. Margarita Olabarrieta Sobera
Técnica de Progrmación: Dª Natalia Garate Andrade
En sustitución del Interventor accidental: D. José Miguel Paredes Cisneros
Secretario Delegado: José Fernando García Pañeda.

El Sr. Presidente pasa a tratar los asuntos incluidos en el orden del día de la convocatoria.

## 1º. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL 29 DE MAYO DE 2018.

A la vista de la previa remisión del acta de la sesión ordinaria celebrada el 29 de mayo de 2018, se excusa su lectura en el presente momento.

No produciéndose intervenciones al respecto, el Sr. Presidente procede a dirigir la votación del acuerdo:

El Consejo Rector, con el voto favorable de los grupos EAJ/PNV, Socialista y Popular y la abstención de las representaciones de los grupos Si se puede Santurtzi, Bildu y del Concejal no adscrito acuerda aprobar el acta de la sesión ordinaria, celebrada el 29 de mayo de 2018.

**2º. DACION DE CUENTA DEL ESTADO DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA DEL O.A. SERANTES KULTUR ARETOA A 30 DE JUNIO DE 2018.**

El Consejo Rector se da por enterado del Estado de Ejecución Presupuestaria hasta el mes de junio inclusive, cuya información se ha facilitado previamente.

**3º. INFORMACION DEL ORGANISMO AUTÓNOMO.**

Por parte del Sr. Presidente se informa sobre las pasadas Fiestas del Carmen, cediendo la palabra a la Técnica de Programación, quien da cuenta de los datos más relevantes de las Fiestas.

El Sr. Sánchez Fernández solicita los importes de los conciertos e indica que los datos de asistencia a las fiestas han bajado respecto a otros años.

El Sr. Urtiaga Palacios solicita una valoración sobre el concierto que llevan a cabo las bandas de Santurtzi y si se considera que ha de persistir en el tiempo.

**4º. RUEGOS Y PREGUNTAS**

El Sr. Lucena pregunta sobre si la bajada del IVA va a traer consigo un rebaje en el precio de las entradas y por la renovación del contrato de taquilla, acomodación, portería y exhibición cinematográfica. Por otro lado, también solicita que información de por qué sólo se han colocado hinchables los últimos días de las fiestas.

El Sr. Presidente procede a dar respuesta a las preguntas planteadas.

La grabación íntegra de esta sesión se encuentra en:
https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/ra0FlVp3ICWJ0eT

No habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Presidente da por concluida la sesión, siendo las once horas y veinticinco minutos del día señalado en el encabezamiento. De todo lo cual, como Secretario Delegado de este órgano doy fe.